

26-10-2019

1.eguna: ODERIAGA 1244- AUSTINGARMIN 1087m

Orozkotik, **Ibarra** auzotik pasatuko gara eta ondoren **Usabel**(262m) non aintzineko errota historikoa dagoen. Bertatik kotxez Sintxita eureka amildegiko pistatik **Belauztegiko** aparkalekuraino(735m) igongo gara . Hemendik pista aldapa makaltsua bihurtzen da **Austingarmin mendateraino**(1036m.) iritsi arte. Leku honetan artzain eta ikazkin etxolak pagadiz eta belarrez estalitako dolina batean kokaturik daude.

Mendebalderantz eta aurrean dugun aldapa belartsutik edo pista jarraituz

ODERIAGAtontorrera(1244m)igongo dugu . Hemendik ikuspegia bikaina dugu: **Gorbeia**ko **gurutza**, Araba eta **Itxina** ikusgai.

Txabola ondoko belardian berriro, pistatik jarraituz eta ezkerretara joko dugu Goikogane aterperaino.Aterpe honetatik metro gutxitara **Austingarmin** (1087m) tontorra(2h) izango dugu non Orozko aran guztia zein **Itxina** eta **Atxak** begiestu ahal izango ditugu.

2.eguna:IPERGORTA 1235m. GOROSTETA 1259m.-BAIAS ibaiaren jaiotza.

Aterpetik ekialderantz **Ipergorta** (1235m) aldapa belartsua igongo dugu (20m) eta laster bere buzoi ondoan egongo gara. Tontor honetatik iparekialderantz mendikatea **GR 252** bidetik jarraituz ,ondoko **Gorosteta** (1259m) mendia oso gertu izango dugularik. Bere gailur harritsutik **Itxingote** dolina 1053m ez ezik, Gorbeia osoa ere begiets dezakegu.

Bidetik jaitsiko gara **Arrabako** zelaietaraino, eta **Angel Sopena** aterpetik pasatuz. Hemendik ohiko Gorbeiarako bidetik abiatuko gara Gatzarrietako pasabidea lohituta egonez gero ardua berezia izango dugu. **Egiriña**ora iritsiko gara eta Hegoalderantz jaitsiko gara Austingaminekin komunikatzen duen pista aurkitu arte. Geu albora utzita **Urratxa mendia** ingurututako dugu hegoaldetik Baias ibaia topatu arte. Puntu honetatik iparrerantz joko dugu haitzulo bat barruan dagoen **Baiaseko jaiotzara** iritsi arte. Goiko pagaditik igongo gara berriro Austingarmineko aterpera eramango digun pistara ailegatu arte. (3h) Bazkaldu ostean aterpea jaso eta jaitsiko dugu **Belauztegiko** aparkalekuraino.

Compártelo:

[Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Google+ \(Opens in new window\)](#)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota

Egun batzuetarako zeharkaldia oinez.

Kokapena

Metatutako desnibela

1 DIA: +500/-127m. 2 DIA: +535m/-860m.

Luzera

1.EGUNA: 7,12 km. 2 EGUNA: 9,27 km.

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

9:00 Gailurraren lokalean. (Trauko 27)

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

10:15 Belauztegi (Orozko-Ibarra-Usabel) (aparkalekua)

Irteerarako izena emateko azken eguna

24/10/2019

Jakin beharreko kontu teknikoak

Bide zidor eta larretatik ibiliko gara, Beharrezkoa da lurzoru irregularrean segurtasunez ibiltzeko ohitura izatea.

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Ibilbidea ez da oso luzea , baina desnibela nabarmena da eta leku batzuetan oso aldapatsua.

Material tekniko beharrezkoa

- Garai honetarako eta jarduera honetarako egokiak diren mendirako arropak eta oinetakoak. (edozein eguraldirik aurre egiteko modukoak). Kontuan izan urte sasoi honetan hotz handi samarra egin dezakeela. - Janaria eta edaria. -Umeek A4 plastiko funda batean beraien mapa eraman dezakete, ibiladiaren datuak kontsultatzeko. - Lo-zakua. -Esku-argiak

Bestelako oharrak

Nola joan: kotxez. (Kotxerik ez ba duzu esan) Nola heldu: 68 AP-a. Bilbo-Laudio BI-2522 (Altube helbidea) Zubiaur. (Orozko. 5km. Ibarra eta ondoan Usabel auzoraino. Bertatik Austingarminerantz pista hartuko dugu Belauztegiko aparkalekuraino 744m. Gailurrako bazkideek PLAZEN ERRESERBARAKO LEHENTASUNA izango dute. PREZIOA::HELDUAK 12 EURO (Federatuta egotekotan galdetu) TXIKIAK: 3 EURO Logikoa denez sukaldea aprobetxatuko dugu eta bazkaria elkarrekin prestatuko dugu. Edari eta janariak guztion artean ordainduko ditugu.

Argibide gehigatarako

ROBER 656764081

